

KANALAK

Gure produktua ahalik eta pertsona gehienek erabiltzea gustatuko litzaiguke. Hori burutzeko hainbat kanal erabiliko ditugu, non gure enpresa iragarriko dugun.

Alde batetik, gure produktua bezeroengana iristeko, publizitatea egin behar dugu derrigorrez. Publizitatea hainbat modutara egingo dugu: interneten, webgune baten bidez; aplikazio baten bidez eta sare sozialetan (instagram, twitter, facebook)

Hasteko, gure bezeroekin erabiliko dugun komunikazio kanal orokorra internet izango da, lehen aipatutako webgune eta aplikazioekin hain zuzen ere. Hauetan, produktuaren erabilera eta konfigurazioa azaldu arren, gure produktuaren argazkiak jarriko ditugu, horrela jendeak gure produktua ikusteko aukera izango du. Gure produktua bertan erosteko aukera egongo da, eta behin eskaera egindakoan, Correos enpresaren bidez iritsiko da etxeetara; hau da, ez dira etxetik irten behar produktuaren bila joateko, hala ere, Correosen ofizinan jasotzeko aukera ere izango dute. Bestalde, denda fisikoan erosteko ere aukera egongo da, bezeroek gure produktua zehaztasunez ikusi ahal izateko. Gure denda hasiera batean, toki bakar batean egongo da, baina denbora pasa ahala, espero dugu Euskal Herriko toki gehiagotara zabaltzea gure denda.

Sare sozialen helburua gure bezeroekin gertutasuna lortzea izango da. Bertan webgunean eta aplikazioan bezala gure produktuaren argazkiak jarriko ditugu, eta bezeroek bertan iruzkinak jarri ahalko dituzte, gure produktua baloratuz. Mezu pribatuetatik ere ahalko dute produktuaren eskaera egin.



Gure produktua, webgune, aplikazio eta sare sozialen bidez ahalko da eskuratu.

- **Webgunea eta aplikazioa:** Biak gauza bera dira, baina, aplikazioa google play edo app storetik ahalko da deskargatu. Eta ez baduzu nahi deskargatu, webgunea erabiltzeko aukera izango dute.

Bertan, bezeroek gure produktuaren eskaera egin ahalko dute, eta gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute ere bai. Bidalketa gastuak erabat doainak izango dira.

- **Sare sozialak:** Bertan, produktua eskatzeko egin beharko duten gauza bakarra, guri mezu pribatutik, mezu bat bidali zer nahi dutenarekin izango da, eta guk ahal bezain laister erantzungo diegu. Hau baita ere Correos-en bidez iritsiko da etxeetara. Bestalde, bidalketa gastuak doainak izango dira. Bezeroak nahi duena erabakitzen duenean, erosi behar duenaren kostu totala esango diegu. Behin hori eginda, kontu zenbaki bat bidaliko diegu eta bertan sartu beharko dute dirua. Eta gehienez 72 orduetan etxean edukiko dute.